

...eta

Kitto!

908 zkia.
2014-XI-14

SAN ANDRES TORNEOA



Ipurua Klubaren Erritmora



zerbitzu inmobiliarioak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA **G**ESTIOA **A**DMINISTRAZIOA

30 urteko esperientziak
ematen duen
konfiantza

www.euki.com

Tel: 943 200 358





ZALOA OTADUY, Farmazian lizentziatua "Indiba-rekin osasuna zainduta EDERTASUNA lortzen dugu"

Toribio Etxebarria kalean dagoen Farmalur parafarmaziak urteak daramatza azalaren tratamenduak eskaintzen. Urteekin kosmetika farmazeutikoari lotutako atalak gero eta indar handiagoa hartzen joan da, Farmalur Derma sortu arte. Zaloa Otaduyk arlo horretan sartu dituzten azken berritasunak kontatu dizkigu.

- KOSMETIKA FARMAZEUTIKOAREN ARLOAN, ZEIN DA ZUEN ESKANTZARI GEHITU DIOZUEN AZKEN BERRITASUNA?

Hasieratik, lanean hasi ginenetik, helburu nagusienetakoa guregana datozenen ongizatea eta osasuna zaintzea izan da eta, asmo horrekin, hori lortzen lagunduko diguten azken berritasunekin pendiente egon gara beti. Horregatik, Indiba-ren berri izan genuenean eta hori erabilita zelako emaitza onak lortzen diren ikustean, guk ere hori eskaini behar genuela erabaki genuen eta horretan gabiltza, oso pozik gainera.

- ETA ZER DA INDIBA ACTIV?

Radiofrequentzia dispositibo mediko bat da, estudio kliniko ezberdinak dauka eta estetika lantzeko orduan emaitzak ezinhobeak dira. Tratamenduak oso atseginak eta erlaxanteak dira eta ez dute albo-ondoriorik eragiten. Are gehiago, beti dira osasuntsuak. Aurpegirako zein gorputzarendako tratamenduetarako erabiltzen dugu: zelulitisari aurre egiteko, masaje lasaigarri eta orekatzaileak egiteko, larruazalako ildoa, orbainak eta markak ezabatzeko, azalari argia emateko, jausitako bular edo beste gorputz atalak tinkotzeko... Indibak daukan ekipoen artean guk gamako altuena, Indiba Activ HCR 902 ekarri dugu eta, guk diseinatutako protokoloekin konbinatuta, orain arte probatu dutenak oso pozik daude lortutako emaitzekin. Bezeroak egunetik egunera pixka bat hobeto ikusten ari dira eta gu, hori ikusita, oso oso pozik gaude.

- HORREZ GAIN, ONGIZATERAKO BESTE TRATAMENDU BATZUK ESKANTZEN DITUZUE, EZTA?

Hala da: txokolaterapia, Herbal Sian, harri bolkanikoak... ongizatea lortzeko tratamendu eskaintza zabala daukagu. Gaur egun denbora falta zaigu, batez ere gure burua zaintzeko orduan. Horregatik, horrelako tratamenduak benetan opari ezinhobeak dira edozeinentzat eta bakoitzaren eskaerari egokitzen diren **OPARI-BONO** ezberdinak daukagu aukeran.



FARMALURderma

Toribio Etxebarria, 18 604 203 524 / 943 702 923

ASTEAN ESANAK

"Desbiazioetan hasi gara. Orain gutxi TopaEguna izan da Derion; bada sarreran, ze detallazo!, bizkaieraz jarri zuten: 'Euskeraz ein'. Zelan 'ein'? Zergatik ez duzu jarri 'in'? Edo 'ingo dogu', edo 'ingu'. Eta, 'egin' ez da bizkaiera ala? Hori da, askotan, kontua"

(KEPA ALTONAGA,
ZIENZIA-DIBULGATZALEA)

"Kontuz ibili behar dugu boterean aspaldidanik izan den belaundaldi batek -68koak- negarrari ematen dionean edota gogoratze nartzisistari ekiten dionean; orduan ihesi irten behar gara. Hemendik aurrera autobiografiak, sasi-biografiak, eta bestelako saio erdi nartzisista erdi (post)traumatiko ugari irakurriko ditugu"

(JOSEBA GABILONDO,
IDAZLEA)

"Iñaki sasoi batean asko erabili izan zen, baina gaur egun izen hori duten bakarrak aitak eta aitona dira. Gauza bera gertatzen da Garbiñe, Eduarne eta Begoñarekin. Izen horiek jai dute hurrengo belaundaldian. Mikel eta Aitor, ordea, oraindik modan daude. European lez, izen motzen aldeko joera dago, bi silabakoena gehienetan. Jon Ander da bakarra izen konposatuaren artean"

(MIKEL GORROTKATEGI,
EUSKALTZAINDIKO ONOMASTIKA BATZORDEA)

"Idazleok ez dugu askorik idazten heriotzari buruz, gutxiago lutoaren inguruan: sendagileen eta beste batzuen eskuetan lagatzen dugu. Lehen heriotzarekin familia giroan toreatzen genuen eta orain egin behar hori ospitaleetara eraman dugu. Kuriosoa da ikustea zelan lagatzen dioten jendeari euren etxeetan hiltzen: baina merkeagoa delako, ez bihozberago bihurtu direlako"

(JULIAN BARNES,
IDAZLEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KASKURRIO.- Ilegorria. "Kaskurrioneuak baziran Eibarren, urria lako ule-argixak".

KASTIAU.- Arraza desberdinetako animaliak nahastu. Gaztelerazko 'cruzar'. "Gure txakur zurixa, zuen beltzagaz kastiau gura genduke".

KATAIAN EGON.- Katearekin lotuta egon. "Txakurra, badaezpada, egunez kataian eukitzen eban".

eskutitzak

AISIA ETA NEKAZAL INGURUNEA

Eibarko nekazari ingurunea oso mugatua da, hori badakigu. Hegoaldea, laiotza eta malda handiekin, ekialde eta mendebaldean ezertxo ere ez dugu, errepide nazionala. Baina iparraldean, Eibar bezalako herri batentzat benetako harribitxia dugu kokapen, orografia, paisaia eta lurzoruari begiratzen badiegu, nahiz eta hango zuhaitz gutxiak galtzen doazen.

Inguru horretan gabiltzanok, bide guztiak hondatzen dihardutela ikusten ari gara azken urteotan. Garai batean belarrezko bide goxo zirenak motorren eta quaden pista bihurtu dira, pertsona talde txiki baten probeturako, eta modu honetan eibartar izpirituarekin hain lotuta dagoen inguru naturala galtzen ari gara, hain ederra dela eta ia daukagun bakarra dela kontutan hartzen badugu.

Gaur arte, eibartarroi pasealeku naturalekin zer ikusia duen edozer galarazi zaigu. Hainbat herritarrek eskutatuko (sinadura eta guzti, 10.000 baino gehiago) bidegorria oraindik kimerata bat da, Euskadiko eta (zergatik ez?) Espainiako edozein herrik daukanean. Orografiagatik kostu altuak direla eta abar esaten digute, baina errealitatea da, eibartar batek herritik kanpora ibilaldi bat egin nahi badu errepide jeneralera irten behar duela ingurune egokiagoen bila.

Gauzak horrela, gutako askori Arrate-Kalamua-Akondia-Urko da gelditzen zaigun gun bakarra. Jatorrian ingurune zoriagarria, baina zaintzen hasten ez bagara galduko duguna (bagoaz bidean).

Kontua ez da inbertitzea, dagoena babestea baino. Nekazari ondare bat ahalik

eta modurik onenean kontserbatzea, praktikan ia gelditzen zaigun bakarra. Edonola ere, toki hau ezin dugu pertsona talde txiki baten eskuetan utzi, hauei inguruaren egoera (gaur egungoa edo etorkizuneko) bost axola zaien.

Arazoa dozena bat pertsona dira, ez gehiago, baina beraien makinekin parean harrapatzen duten guztia txikitzen dute. Ez dira konturatzen (edo ez zaie axola) eragiten duten kalteak.

Idatzi honekin dagokien erakundeei dei egiten diegu (udala, aldundia eta abar) gaiaren ardura har dezaten eta behingoz aisialdiko ibilgailu hauen erabilera arautu dezaten.

KALAMUAREN ALDEKOAK



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi

eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Ipuru Gimnasia Erritmikoa

BANAKETA-ARDUARDUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aralarren baloraziñua Errebal auzia dala-eta

Gipuzkoako Probintzia Auzitegixak Errebal auzia artxibatzeko erabagixaren inguruko baloraziñua egin dabe Aralar alderdikuak. "Edozein kargu publikok edozein irregulartasun salatzeke derrigorra legitimatzen dabela" hasieratik argi lagata, "Gipuzkoako Auzitegiko Fiskaltzari 2006tik 2010era bittartian egindako aktuaziñuetan ustez prebrikaziño deliturako osagaixak zittuen hainbaten barri emon", baiño ez ebela egin diñue. Horrekin batera, "Aralarri esker fase bakotzeko irregulartasunak tribunaletaraiño eruan zirala, Errebal operaziñuak billatzen eban makro merkataritza guniaren zoramena" geratzia lortuta eta, holan, "herritarrak partehartzeko proze-

suan azaldutakueri jarraituta diseiñautako erabillera anitzerako eta aisialdirako espazioa sortzeko eszenatokixa" ahalbidetuta.

Edozelan be, hasierako asmuen harira udalak euki dittuan gastuak gogora ekarri nahi dittue: "Hasteko, Musika Eskolia Portalera eruatiak eta lokalak egokitziak izandako kostua dago. Horrekin batera, eta udalak profesionalak eukitta be, kanpoko abokatueri orduko 150 euro pagau jakuzen luzaruan, Boulevarden kartiari ebazpen proposamena egitteko. Eta horrekin batera 2010az geroztik Rialtoeren alokairuak (hilloero 4.000 euro inguru) eragindako gastua gehittu bihar jakoz".



Bestalde, gogor salatu dabe "inputatuak instruksiñuan aurpeirik ez emotia" eta "auziaren mamia osatzen eben euren abokatuen galdereri ez erantzutia", bestiak beste. Eta, amaittu aurretik, "inputatu" maillara igotzeko erabagixa Auzitegixak berak hartutakua izan zala argittu dabe.

Ipuin solidarixo barrixa salgai

Isekin alkartiak "Araitz, Ixone eta Unai ahaten parkean" izenburuko liburu solidarixua emon dau argittara Sanfilippo fundaziñuari laguntzeko. Sanfilippo izeneko gaitza oso larria da eta Espaiña osuan 70 umeri eragiten detse: gaixotasuna umiak lau-bost urte betetzen dabenian agertzen da eta, behin degeneraziño-prozesua hasten danian, gaixua nerabazarora aillegau aurretik hil egitten da. Ikertzailliak sendagaixa topatzeko biharrian segitzen dabe, baiña inbestigaziñuak balio daben 3.000.0000 eurueri aurre egitteko ahalegin haundixa egitten dabiz eta, bestiak beste, ipuiña argittaratu dabe, hori salduta inbestigaziñorako dirua batzeko. Ipuiñeko protagonistak Araitz, Ixone eta Unai dira, Sanfilippo gaitza daken neba-arreba bilbotarrak. Marisa Amigok idatzittakuari laguntzen Nuria Espinosaren marrazkixak dakaz ipuiñak eta Jon Mikel Mugika eibartarrak euskararatu dau. Ipuiña hiriburuetan presentatzen hasitta dagoz eta abenduaren 20xan Eibarren aurkeztuko dabe, beste ekitaldi batzurekin osatuko daben jardunaldixan. Bost euro balio daben liburua Eibarren erosteko El Corte Ingles-era, Ipuruako Eroskira, Estaziño kaleko Outlet eta Homme dendetara, Legarreko Bukuri estetikara edo Ego Gain kaleko Irimo tabernara jua leike.



Marisa Amigok idatzittakuari laguntzen Nuria Espinosaren marrazkixak dakaz ipuiñak eta Jon Mikel Mugika eibartarrak euskararatu dau. Ipuiña hiriburuetan presentatzen hasitta dagoz eta abenduaren 20xan Eibarren aurkeztuko dabe, beste ekitaldi batzurekin osatuko daben jardunaldixan. Bost euro balio daben liburua Eibarren erosteko El Corte Ingles-era, Ipuruako Eroskira, Estaziño kaleko Outlet eta Homme dendetara, Legarreko Bukuri estetikara edo Ego Gain kaleko Irimo tabernara jua leike.



Jubilauak dotore pasarelan

Aurreko barixakuan Untzagako jubilaue txian egindako desfiliari parte hartu eben modeluak edarto erakutsi zittuen modako azken joerak pasarela gaiñian. El Corte Inglesekuak lagatako erropak jantzita, andrak eta gizonak bata bestiarekin atzetik denboraldi honetarako konjuntio diferentia zelari geratzen diran erakutsi zittuen desfilia ikustera juandakuen aurrian.



Bartolome Egurrola Azpiazu

(1926-V-17 / 2012-XI-14)

2. URTEURRENA

Sekula ez zaitugu ahaztuko

(Etxekuak)





1944an jaixotakuen bazkarixa

Aurreko asteburuan alkartu ziran erretratuan ikusten ditzuzuenak, aurten 70 urte bete edo beteko ditzuela ospatzeko. Holakuetan egitten dan planari jarraituta, taldiaren erretratua etara eta gero txikiteuan ibilli ziran, bazkaltzeko ordua ailegau arte eta, zelan ez, eguna edar-to pasau ebela esan deskue.

Gaztaiñerre tabernarik taberna



Aurten be umore onian ospatu eben Gaztaiñerre AEK euskaltegiak eta lagunak, Eibarko Kantuzaleak eta trikitilarixak lagundutako kalejira egin-da. Paloma tabernan alkartu eta afari-merienda egin eta gero, Urkiko tabernetan segidu eben jai-xa, traguak eta pintxuak kantuekin tartekatuta.

autuan

GARAPEN AZOKIA

Zapatuan eta domekan, 11.00etatik 14.00etara Garapen Pertsonala Azokia hartuko du Untzagako karpak, personiaren garapenari laguntzeko herrixan daguan eskintza ezagutzera emoteko. Parte hartuko dabenak euren postuan informaziñua emotiaz gain, hainbat taillar eta jarduera osagarri preparau dittue. Zapatuko eskintzan hñonetxek dagoz: "Mindfulnes" (Adhara Zentrua, 11.15-12.00); "K-Strech erakusteko tallarra" (Isasi masaje zentrua, 12.15-13.00); eta "Nola irakorri etiketa nutrizionala" (Nutrieibar, 13.15-14.00). Eta domekan: "Laztan-tallarra" emongo dau Haurraren-helduaren psikologia gabinetiak (11.15-12.00; "Motibaziorako energia" (Akorde Coaching, 12.15-13.00); eta "Entzun zure gorputzari zoriontsu izateko" (Isasi masaje zentrua, 13.15-14.00). Eta egun bixetan, 11.00etatik 14.00etara "Haurrentzako taillarra" emongo dabe Miriam eta Amaia Psikopedagogia zentrokuak.



Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- 1) Kardiologia; 2) Zirugia; 3) Dermatologia;
- 4) Dietetika eta Nutrizioa; 5) Anlisi Klinikoak;
- 6) Ortodontzia; 7) Otorrinolaringologia;
- 8) Pediatria; 9) Psikiatria; 10) Neurologia;
- 11) Barne Medikuntza; 12) Radiologia;
- 13) Urologia; 14) Traumatologia;
- 15) Koloproktologia; 16) Erizaintza;
- 17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa;
- 18) Foto-depilazio Unitatea; 19) Ginekologia;
- 20) Lagundutako ugalketa (**BERRIA**)

FM Funeraria Ehortzetxe
Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra
☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Lehiakortasuna hobetzeko jardunaldixak



Iaz egindakuari jarraituta, Ekingune Debabarreneko ekintzaillien alkartiak datozen egunotan duan eskinduko dittuen jardunaldixak antolatu ditu, "lehiakortasuna hobetu nahi daben edozeiñendako". Lehelengua ("Pilula fiskalak eta kontableak") datorren asteke martitzen emongo dau Somos Asesores aholkularitzako Eduardo Garcia, 18.30xetatik 20.30xetara. Hillaren 24an "Pribatutasuna negoziotan eta sare sozialetan - Networking" izenburukoa eskinduko dau Eduard Domingo, SEGURdades datu pertsonalen babeserako aholkularitza juridikoko ordezkariak, Hobeekin aholkularitzarekin alkarlanian (18.30xetatik 20.30xetara eta jarraixan mahainguru). Abenduaren 1ian eta 2xan Dialek-



tika Coach-eko Juan Carlos Martinek "Ekintzailetza eta merkataritza-lidergoa" izenburukoa emongo dau (egun bixetan 19.00etatik 20.30xetara) eta abenduaren 16xan Mariella Saitz AXA Eibarko agente eskusibuak "Finantza-babesa enpresentzat eta autonomoentzat" izenburukoa, 19.00etatik 20.30xetara. Saio guztiak Portaleko 3. pisuko ikastaro gelan izango dira eta parte hartzeko ekingune@ekingune.com helbidera idatzitza izena emotia eskatzen dabe.

Enpanada sarituak

Aurreko asteburuan As Burgas Galiziako Etxeak antolatutako V. Enpanada Lehiaketan irabazliak Angel Ramos Francos, Maria Cortizo Taboada eta Lucia Alonso Meiriño izan ziran. Enpanada lehiaketiarekin batera, asteburu guztian Magosto jaixa ospatu eben Urkizuko parkian, Os Galaicos taldekuen musikiak girotuta.



San Andres jai herrikoiei trabak

Jaixak Herrixak Herrixandakok idatzi deskunez, "San Andres bezperarako antolatu genduan egitaraua bertan behera geratu da, Udalaren debekugaittik. Iazko moduan, udalari alkarlanian jarduteko proposamena egin gentsan, azaruaren 29rako hainbat ekimen eta egun guztiko egitaraua propo-

satuz. Hainbatetan eurekin bildu eta gero, udalak jarrera guztiz itxixa erakutsi eban, alkarlanerako proposamen guztieri uko eginez eta eskindu zeskun gauza bakarra espaziu erabiltzeko aukeria izan zan. Edozelan be egitarauarekin aurrera segitzia erabagi genduan, baiña udalarendako hori ez zan nahikua izan eta, kultura teknikarixaren txosten ezkor baten ostian Gobernu Batzarrak karpa 22.00etatik aurrera erabiltzia debekatu desku". Gauzak holan, erabagi "teknikua" baiña "politikua" dala pentsatzen dabe eta jendia antolatzen dittuen ekimeneetan parte hartzera animau nahi dabe.

Olixo-dastaketa arrakastatsua

Hogeit bat lagun batu ziran martitzen illuntzian ...eta kitto! Eus-kara Elkartearen egoitzan, Iker Diaz de Ceriok gidatu eban olixo-dastaketan parte hartzeko. Arabar Errioxako Olio eta Olibondoa-ren Mahaiko kidiak eurak ekoizten daben olixuaren inguruko hainbat azalpen emonda ekin zetsan saiuari eta, jarraixan, jendiak olixo diferentia probatu eta dastatzeko aukeria euki eban, baktxaren ezaugarrixen gaiñeko azalpenak adituaren ahotik entzuten eban bittartian.





MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANS GROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



**San Andres
Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Nepal aipatuta, Everest, munduko mendirik altuenarena da gehienon burura datorren lehen irudia.. Baina Nepal mendia baino askoz ere gehiago da: kultura, hizkuntzetan eta jende anitzean, baina batez ere alaitasunean herrialde aberatsa da. Horrela definitu dute gure artean bizi diren nepaldarrek Munduko Paisaiak programaren barruan euren sorterriari eskaini dioten irakurketa gidaren sarreran. Eibarren bizi diren nepaldarretako askorekin bat egin genuen astelehenean Portalean, Nepalgo sukaldaritza tailerrean eta Malati Panthak pozik kontatu zizkigun bere herrialdeari buruzko kontuak zein gurera bizitzera etorri diren nepaldarren inguruko gorabeherak.

MALATI PANTHA, nepaldarra:

“Oso pozik gabiltza gure herria eta kultura hemengoei erakusten”

- Nolatan egin duzue bat Liburutegiak Topaleku programarekin?

Euskadiko liburutegi publikoek urtero abiarazten dute Liburutegiak Topaleku programa, herrialde ezberdinen arteko tolerantzia eta kultur integrazioa sustatzeko asmoz, baina guri aurten parte hartzeko proposamena egin arte ez nuen horren inguruko berririk. Ni Gurutze Gorrian eta Caritasen boluntario nabil eta, horren bitartez, Gorka Errasti Inmigratio teknikaria aspaldi ezagutu nuen. Halako batean, gure arteko elkarrizketan berak programari buruz berba egin zidan eta, Nepali buruzko egitaraua prestatzen laguntzera animatuko nintzen galdetzean baietz erantzun eta hemen gaude, egitaraua osatzen duten jardueretan bete-betean sartuta.

- Eta nolako egitaraua prestatu duzue Nepal gure artean ezagutzera emateko?

Nepali buruzko liburuxko monografikoa, Eibarko liburutegian Nepali buruz dauden

lanen irakurketa gida prestatu dugu. Orain arte Periko Iriondo eibartarraren ikus-entzunezkoa erakutsi eta Iciar Bollainen "Katmandu: un espejo en el cielo" filmaren inguruko bideo-foruma egin dugu, sukaldaritza tailerra prestatu dugu eta beste bi jarduera gehiago egingo dira datozen egunotan: datorren astelehenean, 18.30etatik aurrera "Nepal ezagutzen" hitzaldia emango dugu liburutegian eta azaroaren 28an, 18.00etan, "Nepalگو Ipuinak" saioa eskainiko du Maite Franko ipuin kontalariak, umeen liburutegian.

- Nolatan laga duzu jaioterria gure artera etortzeko?

Gure herrialdeko gobernuarekin gazteek ez daukagu etorkizunik, ez dago beharrik, aberatsen eta pobreen artean ezberdintasun oso handia dago. Horregatik, handik irtezeko aukera daukagun gazteek beste herrialde batzuetara alde egiten dugu, bizimodu hobe izango dugun esperantzarekin. Ei-

barren gaur egun 70 bat nepaldar bizi gara, bakoitza bere aldetik ailegatu da eta, behin hemen bizitzen gaudela, gure artean ezagutzen joan gara. Batzuk hona ailegatu aurretik Holandan, Bartzelonan, Londresen bizitzen egon dira... Izan ere, ikasleok Londresen ikasten jarraitzeko erraztasunak daukagu eta askok aukera hori aprobetxatzen dute Nepal laga eta han ikasketak egiteko. Hala ere, Londresen hiru urte ikasten eman eta gero, lanerako baimena lortzea oso zaila eta garestia da eta, horregatik, handik beste toki batzuetara mugitu behar izaten gara derrigorrez. Nik hiru urte daramatzat Euskal Herrian.

- Eta zer moduzko aldaketa izan da?

Niretzat oso toki polita da, hemen bizitzea asko gustatzen zait eta jendea gurekin oso atsegina dela begitantzen zait, oso ondo hartu gaituztela pentsatzen dut. Eta programa honi esker gure herrialdea eta kultura hemengoei erakusteko aukera izateak poz handia ematen digu, oso gustora gabiltza. Nire senarrak ikus-entzunezkoak egiten ikasi du eta azken egunotan datorren asteko hitzaldiari laguntzeko proiektioa prestatzen dabil.

- Zer esango zenioke Nepali buruz ezagutzen ez duen norbaiti?

Jende guztiak dakien moduan, munduko mendirik altuena daukagu, baina horrekin batera paisaiak, erreka... parajeak benetan zoragarriak dira. Oso herrialde polita da eta Budak garrantzi handia dauka guretzat, besteak beste bere izenak "bakea munduan" esan nahi duelako.



Egitarauko jarduerak antolatzen ibili dira Eibarren bizi diren nepaldarrak.

Irene Saceda, Ainhoa Arroitauregi eta Ane Escolar hirukotea ETB-1eko "A ze banda!" kantu lehiaketan ikusteko aukera izan genuen, emititu zuten bigarren saioan Enkoreren "Airea" abesten. Eibartarrek osatutako NK3 taldeak ez zuten lortu hurrengo fasera pasatzeko txartelik, baina horrek ez die aurrera egiteko gogorik kendu. Are gehiago, esperientzia hori atzean laga eta proiektu berriei gogotsu heltzeko irrikitan daudela esan digute.

- Nola animatu zineten "A ze banda!" lehiaketarako izena ematera?

Ni (Irene) aurretik ETB-ko "Kantuan" saioan parte hartu nuen eta, lehiaketa berria egingo zutela eta, zuzenean nirekin harremanetan ipini ziren, nirekin batera abesteko beste bi lagun bilatuz gero parte hartzeko aukera izango genuela esateko. Hirurak lagun minak garenez, Koru Gaztean ibilitakoak... ba Ainhoa eta Aneri komentatu eta berehala ipini ginen martxan. Telebistan orain ematen duten arren, lehiaketarako grabazioa udan, uztailean egin genuen. Telebistarako saioa grabatzera joan aurretik casting modukoa egin genuen eta gu kantatzen agertzen ginen bideoa grabatzeko ere eskatu ziguten: beste barik, hirurak lurrean jarri eta "Zarena zarela-ko" abestu genuen.

- Eta zer moduz joan zen telebistarako saioaren grabazioa?

Saioa grabatzen hasi aurretik Alex eta Zuriñe aurkezleak guk Bilbon entseguak egiten ditugun lokalera etorri ziren, kamerarekin, eta han bertan lehen probarako grabazioa egin zuten. Telebistan uztailea hasieran egon ginen eta, egia esan, grabazioak oso luze jo zuten. Gu kalera joan ginen kanporaketan berez talde bakarra kaleratu behar zuten, baina aurreikusita ez zegoen

beste talde bat sartu zuten eta, horregatik, hurrengo tandarako sailkatu beharrean gu ere kanporatu gintuzten. Edozein modutan ere, esperientzia berri bat bizitzeko aukera izan genuen.

- Zer daukazue esku artean?

Gure proiektuan buru belarri sartuta gabiltza. Juanmi gure "coach"-ak talde bitan gitarra jotzen du eta, bere bitartez, bigarren gitarra bat, bateria-jolea eta baxua gurekin batzea lortu dugu, denek elkarrekin NK3 taldea osatzeko. Ilusio handiarekin ekin diogu lanari, astero entsaiatzeko batzen gara eta gure abestiak sortzen hasita gaude. Guk idatzitakoekin batera beste batzuen kantuen bertsioak edo "coverrak" abesten ditugu eta laster kontzertuak ematen hastea espero dugu. Gainera, entseguetan oso gustora jarduten dugu, elkarrekin oso ondo moldatzen garela eta, musika egiten dugun bitartean, beste kontu guztiakin ahaztu egiten garela.

- Eta nolakoak dira zuek sortutako abestiak?

Nahiko rockeroak direla uste dugu, indartsuak. Bestalde, beste taldeen kantuak gehienetan ingelesez abesten ditugu, baina gureak euskaraz idazten ditugu. Batean eta bestean jotzen hasi eta gure musika jendeari gustatuz gero, aurrera egiteko irrikitan gaude.




NK3 (IRENE SACEDA, ANE ESCOLAR, AINHOA ARROITAJAUREGI)

"Kontzertuak ematen hasteko irrikitan gaude"

el ambigú

j. etxeberria, 12
943-200047

- SAN ANDRES
MENUA
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
eta razioak



Urkizu pasalekua, 32. Tel. 600212678 sypidiomas2014@gmail.com
www.sypidiomas.wix.com/sypidiomas

**Txinera eta
frantseseko
AKADEMIA**

· Umeentzako ingelesa
· Azterketa ofizialeterako prestakuntza

Animatu zaitez!

Bihar XVI. San Andres Torneoaren erritmora

Bihar arratsaldean, 15.30etan hasita, gimnasia erritmikako San Andres Torneoaren 16. edizioa jokatuko da Ipurua kiroldegian. Hor izango dira, Euskadi, Nafarroa, Errioxa, Asturias eta Gaztela-Leon ordezkatzeko, hogeitaldetik gora. Lehiaketa hori, gainera, hurrengo asteburuan Castellonen jokatuko den taldekako oinarri mailako Espainiako txapelketa prestatzeko azken proba izango da. Maila horretako Ipuruako taldea, gainera, denboraldi honetan parte hartutako proba guztietan nagusitu da eta faboritoen artean egongo da.



Gasteizen ere Ipuruako boskotea podiumaren gorenean izan zen, Euskalgym-en garaile.

Ipurua Klubaren azken garaipena domekan izan zen, Gasteizen jokatutako Euskalgym-ean. Proba horretan, Eibarko boskoteak 11,033 puntu lortu zituen, Vallecasi (10,767) eta Monvedreri (10,083) aurrea hartuta. Estatu osoko 40 taldetik gora izan ziren parte hartzen kadete oinarri mailako txapelketa horretan, guztiak ere azaroaren 21etik aurrera jokatuko den Espainiako txapelketari begira; Castellonen 70 taldetik gora lehiatuko dira Ipuruakoekin.

Nahia Arguizek, Teresa Miguelek, Elena Sudupek, Malen Txurrukak eta Elene Varelak osatzen duten boskoteak urrezko domina lortu dute denboraldi honetan jo-

katutako torneo guztietan, beti ere bost mazedekin eskaintzen duten ariketan ikaragarriko maila erakutsita. Azken egunotan Ipurua Klubeko talde teknikoa osatzen duten Tania Nagornaiak, Susana Prietok eta Miriam Merinok gazteen teknika birlibiltzen ahaleginduko dira.

Biharko arratsaldea hartuko duen San Andres Torneoa hainbat mailatan jokatuko da: 1. kategorian Ipuruak ez du talderik aurkeztuko oraingoan eta bakarrik Sako-neta izango da; federatuen arloan, senior, junior, alebin eta infantil mailakoek jardungo dute lehiaketetan; eta oinarrikoen arloan, kadete, infantil eta alebin mailakoak izango dira.

75 gimnasta inguru Eibarren

Ipurua Klubeko gimnasten kopurua jaitsi egin da aurrean eta, esaterako, federatu mailan ez dute senior talderik atera, "herrian bi bakarrik izanda, kanpotik ekarri behar genituelako bestela". Eta oinarriko mailakoa da Espainia mailan "zeozeg egiteko aukera duena". Amateur mailan kadete eta jubenil mailako taldeak dituzte eta bizpahiru banaka mailan parte hartzen dutenak. Eskolartekotetan, bestalde, "alebinetan 15 neska ditugu, infantiletan beste zazpi, eta beste 15 bat benjaminetan". Epe laburrerako erronkei begira, "amateur eta eskolartekoetan Gipuzkoan podiuma egin eta Euskadiko txapelketan sartzea" daude, besteak beste.



Sare sozialen bitartez argazki hau partekatzen duzuenon artean, ZOZKETA egingo dugu abenduaren 3an, Euskeraren Egunean.

facebook.com/etakittoaldizkaria

@etakitto

Saria: eta kitto!ko sudadera + kamiseta

eta kitto

...eta kitto! Euskara Elkarteak Urkizu 11
komunikabideak@etakitto.com 943 20 67 76 - 943 20 09 18

130 eibartar (17 emakume) Behobia-Donostiaren 50. edizioan


Gure herriko 130 atleta helmugaratu ziren aurreko domekan Behobia eta Donostiaren artean jokaturako maratoni erdian, euren artean 17 emakumezko. Probaren 50. edizioan 26.428 korrikalari helmugaratu ziren eta irabazleak Jose Carlos Hernandez kanariarra (1h:01:37) eta Vanessa Veiga galiziarra (1h:09:58) izan ziren. Pello Osoro izan zen Eibarko lehena, 101. postuan eta bigarrena promesen artean. Aitziber Urkiolak 1.733. postuan amaitu zuen eta 21. emakumezkoa izan zen, eta Imanol Elkoroberezibar, 10.084. postuan, hirugarrena izan zen desgaituen artean. **Hona hemen jarraian eibartarren sailkapena eta proban egindako denbora:**



101	Pello osoro	1h10'55"	6.441	Enrique Martin	1h33'03"	12.236	Ibai Lazkano	1h41'25"	21.404	Aitor Bolinaga	1h56'51"
133	Xabi Etxaniz	1h11'46"	6.901	Eneko Azurmendi	1h33'50"	12.560	Jose Ignacio Telleria	1h41'54"	21.407	Ibon Romero	1h56'51"
314	Josu Azkonaga	1h15'03"	7.038	Juan Carlos Adot	1h34'03"	12.936	Javier Carballo	1h42'25"	21.486	Cristina Bermudez	1h57'01"
851	Jon Cid	1h19'12"	7.333	Ibon Martin	1h34'33"	12.977	Luis Etxeberria	1h42'30"	21.669	Carlos Balseiro	1h57'20"
1.185	Xabier Arrieta	1h20'59"	7.690	Asier Arana	1h35'02"	13.151	Josu Hernando	1h42'46"	22.029	Aitor Cruz	1h58'05"
1.250	Eduardo Uribe	1h21'18"	7.720	Bittor Ugarteburu	1h35'05"	14.330	Idurre Albizu	1h44'28"	22.330	Jorge Saenz	1h58'50"
1.313	Jon Illarramendi	1h21'40"	7.819	Manu Sanchez	1h35'14"	14.542	Jaime Mendiguren	1h44'42"	22.378	Ander Beobide	1h58'56"
1.589	Andoni Mayo	1h22'51"	8.154	Pablo Rodriguez	1h35'44"	14.618	Oskar Saez	1h44'48"	22.380	Aitor Ignacio Aranzeta	1h58'57"
1.653	Borja Rodriguez	1h23'07"	8.422	Tomas Axpe	1h36'07"	14.619	Amaita Abanzabalegi	1h44'48"	22.594	Jorge Perez	1h59'27"
1.733	Aitziber Urkiola	1h23'21"	8.600	Andoni Izagirre	1h36'22"	14.639	Ander Egurrola	1h44'51"	22.751	Jon Mardaras	1h59'56"
1.796	Igor Gomez	1h23'31"	8.793	Ion Moreno	1h36'38"	14.657	Eneko Eizagirre	1h44'52"	22.755	Aitor Bengoetxea	1h59'56"
2.003	Imanol Abad	1h24'03"	8.794	Gorka Gallastegi	1h36'38"	15.044	Igor Madariaga	1h45'29"	22.760	Iban Tueros	1h59'57"
2.597	Aimar Arakistain	1h25'43"	8.843	Kepa Osoro	1h36'43"	15.301	Eneko Urain	1h45'51"	23.441	Juan Galarza	2h02'28"
2.607	Aitor Oiarzabal	1h25'44"	8.983	Ariane Zubia	1h36'54"	16.412	Urko Larrañaga	1h47'35"	23.490	Nerea Ziaran	2h02'37"
2.632	Axier Gisasola	1h25'48"	9.160	Josu Torrealday	1h37'11"	16.543	Jon Urrusolo	1h47'47"	23.923	Jose Angel Diaz	2h04'07"
2.696	Haritz Uria	1h25'58"	9.162	Asier Silva	1h37'12"	16.787	Francisco Compostizo	1h48'09"	24.448	Laura Conde	2h06'28"
2.866	Fernando Molpeceres	1h26'29"	9.173	Jesus A. Del Ejido	1h37'12"	16.796	Mikel Lizarralde	1h48'10"	24.449	Iosu Arakistain	2h06'28"
2.974	Jon Ibarrodo	1h26'45"	9.805	Eneko Escudero	1h38'07"	17.307	Ainhoa Angoitia	1h48'58"	24.724	Hector Garcia	2h07'51"
3.167	Armando Azkonaga	1h27'09"	9.859	Juan Antonio Romero	1h38'12"	17.408	Daniel Iglesias	1h49'08"	25.222	Ainhoa Ugarte	2h11'11"
3.323	Jon Zubia	1h27'28"	10.084	Imanol Elkoroberezibar	1h38'30"	17.413	Oskar Alberdi	1h49'08"	25.225	Koro Blazquez	2h11'13"
3.339	Juan Zubiaurre	1h27'29"	10.357	Aitor Zubizarreta	1h38'51"	17.417	Ibon Arizaga	1h49'08"	25.226	Maidor Otaola	2h11'14"
3.382	Mikel Beristain	1h27'33"	10.459	Jorge Torres	1h38'59"	17.473	Igor Tueros	1h49'15"	25.227	Josean Rodriguez	2h11'14"
3.476	Ion Ander Astigarraga	1h27'45"	10.518	Alex Gonzalez	1h39'03"	18.164	Jon Urisabel	1h50'26"	25.359	Eugenio Morillo	2h12'24"
3.499	Aitor Mugaruza	1h27'48"	10.569	Ander Zamakola	1h39'07"	18.165	Eduardo Kapelastegi	1h50'26"	25.477	Natalia Garrido	2h13'48"
3.826	Enrique Guruzeta	1h28'30"	10.741	Unai Artetxe	1h39'22"	18.783	Iker Aristondo	1h51'35"	25.922	Fernando Arregi	2h20'31"
3.829	Francisco Guruzeta	1h28'30"	10.885	Paul Unamuno	1h39'34"	18.966	Josu Zinkunegi	1h51'57"	25.923	Irene Zubizarreta	2h20'32"
4.321	Enrique Salgado	1h29'22"	11.017	Ekhi Belar	1h39'42"	19.709	Rafael Martinez	1h53'18"	25.960	Iker Etxeberria	2h21'17"
4.492	Leandro Luengo	1h29'36"	11.132	Pablo Lucena	1h39'50"	19.817	Kristina Zabala	1h53'30"	26.010	Zigor Berriozabal	2h22'34"
4.649	Josu Guridi	1h29'54"	11.206	Jon Etxabe	1h39'57"	19.823	Jenaro Zabala	1h53'30"	26.188	Leticia Diez	2h30'23"
5.563	Miren Gallastegi	1h31'33"	11.207	Ernesto Etxabe	1h39'57"	19.866	Adrian del Nozal	1h53'37"	26.298	Fernando Arcanjo	2h42'37"
5.991	Ion Zubiate	1h32'18"	11.598	Eduardo Burdel	1h40'30"	20.226	Alberto Saenz de Viteri	1h54'17"	26.299	Sergio Blazquez	2h42'38"
6.133	Pello Berrizbeitia	1h32'31"	12.137	Igor Guenaga	1h41'18"	20.229	Alexander Telleria	1h54'18"			
6.355	Jose Luis Llado	1h32'55"	12.164	Ibon Ramirez	1h41'20"	21.399	Juanjo Romero	1h56'50"			

Julen Ramon brontzeko domina judoko Espainiako Kopan

Zapatuan Amurrioko Bañueta kirolegian jokaturako judoko junior mailako Espainiako Kopako jardunaldian, Kalamuako Julen Ramonek brontzeko domina eskuratu zuen. Ez zuten euren eguna izan, bestalde, Nekane Muguruzak (eskumako ukondoan lesionatu zen) eta Josu Olmosek (egindako bi borroka galdu zituen). Epaila lanetan jardun zuten Julio Gallegok, Pedro Guerrak eta Manu Agirrek. Hurrengo asteburuan kadete mailako Espainiako Kopa jokatuko da Hondarribian



Herriko waterpolisten plenoa

Urbat waterpoloko senior eta kadete mailako taldeak nagusi izan ziren azken asteburuan jokaturako norgehiagoketan. Seniorek 8-17 irabazi zioten Easori Donostian; multzoko talde indartsuenen artean dagoen hiriburuko ordezkariek hirugarren zatira arte eutsi zion Urbati, baina hortik aurrera amore ematea besterik ez zitzaion geratu eibartarren jokoaren aurrean. Kadeteetan Davide Cerchiren neska-mutilek 9-6 irabazi zieten Waterpolo Donostikoei, astetik atera bizi duten progresioa erakutsiz beste behin

Karatea Orbean, Gabon opari

Jarduera berria ipiniko dute martxan abenduan Orbea kirolegian. Karatea ekialdeko kirol modalitatea izango da protagonista astelehen eta eguaztenetan, 17.00etatik 17.50etara, eskainiko dituzten saioetan. Gabonetako opari moduan saldu duten aktibitateak plaza mugatuak izango ditu eta bakarrik abonatuentzat izango da.

Eibar Foball Taldeak babesle berriak ditu

Eibar Foball Taldeak akordioa sinatu du aste honetan Euskaltelekin hurrengo denboraldira arte taldea babesteko eta, bazkide teknologiko gisa, telekomunikazio-zerbitzuak eskainiko dizkio Alex Aranzabalek zuzentzen duen klubari. Orain dela egun batzuk Wico telefono mugikorren enpresarekin sinatu zuen Eibarrek beste babes-akordio bat denboraldi honetarako (datozen urteetara luzatu daitekeena). Bestalde, Mahala baserriak ere, kirola sustatzeko ahaleginean, Hainbat produktu naturalekin saritzen dihardu Eibarko jokalarien lorpenak. Sariekin jarraituz, Marca egunkariak ematen dituen beste sari bi

jaso zituzten astelehenean Xabi Iruretak eta Gaizka Garitanok, 2. A mailako Zamora eta Miguel Muñoz izenekoak, hain zuzen.

Bestalde, herenegun Leioan jokaturako lagunartekoan, eibartarrek 0-2 irabazi zioten 2. B mailan jokatzen duen taldeari, Angelen eta Urkoko Ximonen golekin.



Urkomendi14 lider Erregionalean



Eibarko taldeak 3-0 irabazi zion Bergara ordura arteko liderarri Unben jokaturako partiduan eta, emaitza horrekin, bergararrekin berdindu dute sailkapenaren lidergoan. Eibartarren arteko derbian, bestalde, Urkik 1-0 irabazi zion Armagiñak taldeari, azken unean Josu Mendezek sartutako golari esker; garaipen horrekin, gainera, Urkik aurea hartu dio Armagiñak-i. Eibartarrek-ek atsedean hartu zuen azken asteburuan; hala ere, sailkapenean Urki eta Armagiñak-en aurretik dago

motzean

ESKUBALOIA

Eibar Eskubaloiak talde guztien argazkia aterako du bihar eguerdian Untzagan, 12.35etatik aurrera. Guztira 15 taldek osatzen dute (euretatik sei neskenak)



ERRUGBIA

Hierros Anetxeko senior taldeak 26-16 galdu zuen Asturiasen, hamar minuturen faltan 12-16 irabazten joan eta gero. 14 urtetik beherakoen taldeak, bestalde, garaipen handia eskuratu zuen Zarautzen.

PILOTA

Maria Jesus Danborenea, Miguel Gallastegi pilotari handiaren emaztea, astelehenean hil zen Donostian. Gure doluminak Migueli eta familiakoiei.

570 KIROL SARI 19 URTETAN,, 846 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu 11, solairuartera. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkarte@etakitto.com

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____ Herria: _____
Telefonia: _____ e-maila: _____
Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____
Kontu zenbakia (20 digito): _____

urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxekoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**

+ OSASUN GUDA

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales **UniverSalud**

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Tfn: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfn. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfn. 943 20 34 46 Tfn. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfn: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiu, 13 (Orbeako Dorreak)
Tfn.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tfn: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN
ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zbkia. OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

+ OSASUN GAZDA

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - sailaruartea
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• **Miopia ebakuntzak**
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Umeak, Nerabeurrekoak, Nerabeak
- Hiperaktibitatea, Autoestimua, Motibazioa, etb.

Tel. 605 75 75 06

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA**

Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

Bidebarrieta, 27-B (3. atea)
943 20 22 66



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea

Tel. 943206823 eta 686859023



Azaroaren 26an bost urte beteko dira El Corte Inglesak gurean merkataritza gunea zabaldu zuela eta, bosgarren urteurrena ospatzeko, Eibarko merkataritza gunek ekintza egitarau zabala prestatu du: gaur arratsaldean, 18.00etatik 22.00etara "Shopping Time" delakoa egongo da martxan Toribio Etxebarria kaleko dendan. Bihar eta hilaren 22an, 18.00etatik 19.30etara, gazte moda dagoen 2. solairuan DJ-a egongo da. Hilaren 25ean Eibar kirol elkarteko jokalaria txartelak sinatzen egongo dira eta hilaren 28an gizonezkoen moda desfilea egingo dute. Horiek hilaren 26ko urteurren-jai egun handirako girotzen joateko prestatu dituztenak dira, izan ere urteurrena ospatzeko egitarauan sorpresarik ez da faltan izango.

Bost urte herriaren izaerari moldatzen

Aurreko barixakuan prestatu dituzten jarduerak ezagutzera emateko agerraldian Eduardo Robredo merkataritza guneko zuzendariak esan zuenez, "Eibarren merkataritza gunea zabaldu genuela bost urte betzeko egun batzuk baino ez dira falta eta, umeekin egiten den moduan, guk ere dendaren urtebetetzea umea bailitzan ospatu nahi dugu". Horretarako, Eibarko El Corte Inglesaren "jaiotze-egunean" 18.00-etan hasiko da jaia: urtero sasoi honetan egiten duten moduan, dendako fatxada apaintzeko ipiniko dituzten Gabonetako argiak piztuko dituzte. Horrekin batera, Ipurua dantza garaikideak urtebetetzezako bereziki sortu duten koreografia aurkeztuko dute. Eta, jakina, nola ospatu urtebetetzea kandelak ipintzeko moduko pastel barik? Horretan ere pentsatu dute eta, inor tarta jan barik ez geratzeko, 6 metrotik gorako altuera izango duen tarta prestatuko dute, jaira gerturatzen diren bezero eta lagun guztiek gutxienez zati bana jateko.



Zozketa eta opari ugari

Egitarauko ekitaldiekin batera, zozketak egingo dituzte bezeroen artean opari txartelak eta bestelako produktuak opartzeko eta Eibar foball taldeko jokalariek sinatutako baloi bi eta elastiko bi ere zozketatu dituzte.

2009an zabaldu zituen ateak Ego Gain kaleko merkataritza gunek, 80 milioi eurotik gorako inbertsioa egin eta gero eta inaugurazio egunetik hona sei milioitik gora bisitari jaso ditu. Dendako 60.000 metro karratuetan "bezeroei modan, etxean, aisialdian eta kulturaren ahalik eta eskaintza zabalena zein zerbitzu pertsonalizatua eta kalitatezkoa emateko egindako apustua indartu du. Horrekin batera, zabaldu zenetik hainbati emandako

babesari esker, gizarte, kultura eta kirol arloetan jarduera zabala finkatzea lortu dugu, bai Eibarren baita inguruko herrietan ere".

Dendako zuzendariaren berbetan, "merkataritza proiektu hau, zalantza barik, esperientzia profesional eta pertsonal bikaina izaten ari da Eibarko El Corte Ingleseko parte garen guztiontzat. Ahalegin eta ilusio handiarekin familia zabala osatzea lortu dugu, eta harro gaude gure merkataritza gunek hiri honetako eta inguruko herrietako bizitzan arlo ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte izatea lortu duelako".

Bost urte hauetan instalazioak agertzen joan diren premiei erantzuteko egokitzen joan dira eta, aparkatzeko 700 tokiez gain, hirugarren solairuko terrazan, taberna, haurrentzako jolas gunea eta era guztietako ekintzak burutzeko eszenatokia dauka. Horrez gain erabilera anitzeko aretoa ere badauka.



Torrekuako anbulategia Ospitale berrira

Bere sasoian eztabaidatua izan zen Eibarko Ospitalea hasi da lehenengo urratsak ematen berau eraikitzeko obren hasierarekin. Sozialistak Eusko Jaurlaritzara heltzarekin bat hartutako erabakia gerorako lagatzeko asmoa agertu zuen EAJ-k gobernura iristean. Baina Eibarren jasotako 11.000 sinadurek eskatzen zutenari jarraituta, Eusko Jaurlaritzarako egonkortasunerako EAJ eta PSE-ren arteko akordioak proiektuari ekitea onartu zuen. Hasierako asmoak aldatu badira ere, Ospitalea izango dugu herrian.



Ospital berriaren Agmarquitectos-en proposamena.

osasun mentaleko zerbitzuak eta pediatriaren zati bat), metro batzuk urrundu eta Ospitalera eramango ditu bere zerbitzuak. Udala ere ados dago proiektu horrekin eta, Osakidetzak Torrekuera erabiltzeko asmorik ez duenez, Udalak bestelako hiri-zerbitzuak emateko aprobetxatu dezake eraikina. Bestalde, Plan Funtzionalean azaltzen denez, "Torrekuak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak batera, kardiologia eta radiologiako kanpoko kontsultak" ezarriko dira ospitale berrian, guztiak ere beheko solairuan.

Urte hauetan Torrekuak izan dituen arazoaren artean akzesibilitatearena dago, batez ere autoarekin joanez gero: gaur egun bertan egiten diharduten lanekin areagotu egiten dena. Trenbidea estali eta inguru berriko ondoren arazo hori konpontzeko asmoa dago. Hala ere, Udalak oraindik ez du erabaki zer funtzio eman zentroari, "amañata-

rrek jubilatuena etxe bat aspalditik eskatzen badihardute ere".

Atzerapausoa

Zerbitzua urruntzeaz aparte, "San Juan kaleko anbulatorioko larrialdiaren zerbitzua eta Errebaleko zentru pribatu baten errehabilitazio zerbitzuak ospitalera eramatea" atzerapausotzat jo du EH Bilduk. Koalizioa kritikoa da ere aurrez aipatutako lanpostuen inguruko datuekin, plan funtzionalean 43 bakarrik sortuko direla esaten baita. "Horiei tabernan edo garbiketari ibiliko direnak gehituta ere, urrutit geratzen da 250-300eko kopururik". Horrez gain, orain arte Legebiltzarrean hainbat osasun bantzordetan Eibarko ospitalearen inguruan agerian geratu dena plan funtzionalean berretsi dela diote: "Ospitaleak ez du inolako edukirik, ez proiekturik, eta ez dator, errealitatean, Eibarren eta eskualdean egon daitezkeen osasun beharrei erantzutera".

Epe erdi-luzerako gaixoendako izango zen sub-akutuentzako ospitalerako Plan Funtzionala aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak. Lehen asmoa bertan askotariko gaixotasun kronikoak tratatzea bazen ere, Gipuzkoa eta Bizkaiaiko 26 udalerriko ia 200.000 lagunentzako zerbitzuak eskainiz, aipatutako Plan Funtzionalean lau solairutik bi bakarrik erabiltzea aurreikusten dira hasierako helburuak betetzeko. Beste solairu bat hutsik geratuko da eta laugarrena Eibarko beste osasun azpiegitura batzuetan eskaintzen direnak bilatzeko erabiliko da.

Obrak Eusko Jaurlaritzaren aurreko legegintzaldiaren amaieran adjudikatu zituzten ia 19 milioi eurotan. Lanak Cycasak, Construcciones ACR-k eta Lurgoien-ek, hiru enpresen artean, sortutako UTE-k hartu ditu bere gain, 25 hilabeteko epean amaitzeko. Horren arabera, 20017rako amaituko lirateke lanok.

Plan Funtzionala

Eibarko Ospitalaren Plan Funtzionalak dioenez, bi hamarkadatan funtzionatu duen Torrekuako Osasun Zentroak, Eibarko herritaren ia erdiei osasun zerbitzuak eskainiz (lehen atentzioa,



Torrekuako anbulategiaren gaur egungo zerbitzuak lekuz aldatu eta bertan bestelako hiri-zerbitzuak eskaintzea aurreikusten du Udalak.

M^a LUISA GARATE ALTUNA "Marialui"

Azaroaren 6an hil zen, 79 urterekin

"Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"

IRTEERA MEZA

azaroaren 16an, domekan, 12.00etan, San Andres parrokan





PEPE VIYUELA (aktorea)

"Antzerkiarekin maitemintzeko aukera daukazue gaur Eibarren"

Gaur 20.30etan "El baile" antzezlan ikusteko aukera izango dugu Coliseo Antzokian. Bertan Pepe Viyuela aktore ezagunak hartuko du parte Susana Hernandez eta Carles Moreurekin batera. Edgar Nevilleren "El baile" 50. hamarkadan estrenatu zen. Garai hartan sekulako arrakasta izan zuen: 7 urte egon zen eszenatokietan eta pelikula bat ere egin zuten. Gaur ikusiko dugun bertsioa Bernardo Sanchez-ena da eta zuzendaria, berriz, Luis Olmos. "El baile"ri buruz hitzegiteko Pepe Viyuela Logroñoko aktore ezagunarekin hitzegin dugu.

- Zenbat denbora daramazue antzezlanarekin eta zer ikusi ahal izango dugu Coliseoan?

Urtebete pasatu da estrenatu genuenetik, eta Madrilen izan ondoren gira bat egiten dihardugu. Orain azkenengo txanpan gaude, laster amaituko dugu. Gure antzerkiaren klasiko bat berreskuratu dugu. "El baile" maitasunaren, laguntasunaren eta denboraren joan-etorriaren gaineko fabula poetiko bat da. Taula gainean agertzen garan emakumezkoa eta bi gizonezkoek elkar maite dugu. Komedia kutsua dauka baina Nevillek bere lanetan eskaintzen duen eleganzia galdu gabe. Batzutan drama-puntu bat ere azaltzen da.

- "El Baile"n hiru garai desberdin agertzen dira: 50. hamarkada, 70. hamarkadaren amaiera eta XXI. mendeko hasiera...

Hiru lagunengaztaroa, helduaroa eta zahartzaroa azaltzen dira. Hau aktoreentzat oso aberasgarria eta polita da; 90 minututan lehenengo gaztea eta ondoren heldua eta zaharra izan behar duzu, honek guztiak dituen zailtasunekin.

- Zelan animatuko zenuke jendea "El baile" ikustera joateko?

Pasa den mendeko antzerkigintzako piezarik inportanteena da "El baile". Sarritan taularatu bada ere, azkeneko 15 urteetan ez da antzeztu. Beraz, antzerkia maite dutenek ederto pasatuko dute. Bestetik, antzerkia gustoko ez dutenentzat antzerkiarekin maitemintzeko aukera paregabea da "El Baile".

- Humorista izateaz gain aktorea, pailazoa eta poeta zara. Urte asko daramazu lanean eta gaur egun oso ezaguna zara telebistako Aida seriea egiten duzun paperagatik (Txema). Nola daramazu hain ezaguna izatea?

Ondo daramat. Ez naiz horren bila ibili. Neri interpretatzea gustatzen zait eta telebistak ospea dakar berarekin. Ospeak ez nau bereziki zorionsua egiten baina, egia esan, jendea oso ondo portatzen da nirekin, eta hori eskertzekoa da.



Abba-ren musika zuzenean

Bihar 23.00etan hasiko da Platinum, Abba-ren omenezko taldearen kontzertua Astelena frontoian. Abba talde ezagunaren omenez 1997an sortutako taldeak eskaintzen duen ikuskizunak oso harrera ona dauka mundu osoko eszenatokietan eta Platimumeko kideek jatorrizkoen estetika, koreografiak eta bestelako guztiak goitik behera kopiatzen dituzte, Abbaren ilusia benetazkoa bihurtzeraino. Udalak, Lambretta Klubaren, San Kristobalگو Jai Batzordearen eta JAI Productions-en laguntzarekin antolatutako kontzerturako sarrerak 22 euro balio du.

Bihar banatuko dituzte Javier Agirresarobe sariak



Astlehenaz gozotik egunero proiektatu dituzte Coliseoan Plano Corto elkarteak antolatutako Asier Errasti Eibarko XV. Film Laburren Jaialdiko lan finalistak eta gaur ere hala egingo dute, 20.00etatik 21.30etara. Saria zeintzuk jasoko duten, berriz, bihar emanango dute ezagutzera, 19.30etan Portaleko areto nagusian hasiko den sari banaketa ekitaldian. Eibartar onenaren sarirako hiru lan daude lehian: Maialen Belaustegi Lapeyren "3502", Oscar Lopez de Zubiriaren "Encurtios Lopez" eta Cruz Noguearen "Colillas".




Kalean pintatzeko aukera

Domekan XXXVII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa egingo da, Eibarko Artisten Elkartearen eskutik. Edozeinek izango du parte hartzeko aukera eta izen-ematea egunean bertan, 09.00etatik 11.00etara egingo da Portalean (Museoan). Margotutako lanak toki berean jasoko dituzte antolatzaileek, 14.00ak arte eta epaimahiak domeka arratsalderako emango ditu ezagutzera irabazleak. Udalaren babesarekin antolatutako lehiaketako sari nagusia 800 euro eta garaikurrak osatzen dute eta beste irabazleek 500, 400 eta 300 euro jasoko dituzte. Hamazortzi urtera artekoen mailan 90 eta 60 euroko sariak banatuko dituzte eta 12 urtera artekoentzat, berriz, 50 eta 30 eurokoak.

Bertso paper lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte

Martitzenean eman zituzten ezagutzera aurtengo San Andres Bertso Paper Lehiaketako irabazleak: hamasei urtetik gorakoe-tan lehen saria Manu Goigana irundarrak irabazi du (300 euro eta txapela) eta bigarrena, berriz, Aimar Goenaga eibartarrak (250 euro eta plaka). Eta hamasei urtetik beherakoen artean, lehen saria Iturburuko Malen Suarezek jaso du (txapela eta liburua) eta bigarrena Arrateko Andra Mari ikastetxeko Pablo Santosek (plaka eta liburua). Irabazleek ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako "Bat-batean, munduko musikekin bertsotan" San Andres bertso-jaialdian jasoko dute saria eta bertan bertso irabazleak abestu beharko dituzte. Jaialdia azaroaren 23an (domekan) izango da, Portaleko areto nagusian eta saioan, Oskar Estanga eta Jon Martin bertsolariek samba, sona, tangoa eta bestelako doinuekin inprobisatuko dute. Sarrerak Sagar Bitza, Kultu eta Depor tabernetan daude salgai (6 euro). Saioa arratsaldeko 18.30etan hasiko da, baina sariak aurretik, 18.00etan banatuko dituzte.



Manu Goigana.

Euskal Jaiaren 50. urteurrena

Datorren urteko maiatzean Eibarko Euskal Jaiak 50 urte beteko ditu. Hori ospatzeko, ekitaldi-programa berezia prestatuko dute eta Euskal Jaian egin ohi den dantza-ekitaldia bera ere ez-ohikoa, berezia izango dela aurreratu dute antolatzaileek: "Asko dira dantzan ibili direnak, eta asko dira belaunaldiz belaunaldi Eibarren dantzan egin dutenak. Urteurrena denon artean ospatu nahi denez, 2015eko maiatzaren 31n, dantzari ibilitakoei berriro plazara dantzara irteteko aukera eskaini nahi zaie".

Denek batera egiteko dantza proposatzen da: "Iribasko ingurutxo" eta "Imotz-eko esku-dantza". Parte hartu nahi duten guztientzat hainbat entsegu egingo dira (urtea hasi orduko, entsegu-datak, tokiak eta orduak jakinaraziko dira). Edozein modutan ere, Euskal jaiaren 50. urteurreneko ospakizun eta dantzarako entseguen informazioa jasotzeko 50euskaljaia@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 605 711 429 zenbakira Whassappa bidalita.



laburrak

SANANDRESAK GASTEIZEN

Gasteizen bizi diren eibartarrek San Andres ospatzeko afaria egingo dute azaroaren 27an (egunean), 21.30etan Conde de Alava jatetxean. Afaldu baino lehen, 20.00etan Santxo Jakituna kaleko Txiki tabernan batuko dira. Izena emateko eibargasteiz@gmail.com helbidera, 659168878 telefonoko Whatsapp taldera edo Facebook-eko taldera idatzi daiteke.



ELKARTASUN BEKAK

Udalak ematen dituen Nazioarteko lankidetzeta eta Garapena programaren diru-laguntzak eta Elkartasun Bekak eskatzeko epea zabalik dago. Interesatuak Pegoran (Herritarren Zerbitzurako Bulegoan) aurkeztu beharko dute eskaera, abenduaren 11 rako (hau barne). Informazio gehiagorako bertara joan daiteke edo www.eibar.eus helbidean begiratu.

Gorrotxategi teilak eta zigarretak • Karramarro errusiarra %100 txaka-hankak • Rosara pikillo piper-saltsa • L'Himalayen gatz larrosa • 2011ko Marin Codax albariñoa • 2013ko Gran Feudo ardo gorria • El Navarrico zainzuri zuria 6-8 ale • Absolute Level vodka • Chivas Regal whiskia (12 urte) • 2005eko Gaudium Erreserbako ardo beltza • Gin Mare gin-a + kopa • Castaing foie gras osoa • Gorrotxategi turro gogorra • Club Gourmet txokolate-opilak • 2011ko Monte Real kiantza beltza • Amor de Madre Errioxako ardo beltza • Abadia S.Quirce Erreserbako ardo beltza • Anta 16 kiantza beltza • Dantza pikillo piper osoak estra • Pedro Luis alkatxofa-bihotzak • Madari osoa Coquet ardoarekin • Arkume-izterra Cascajares oliba oliotan • Cascajares izter errea • Top Jabu urdaiazpiko ondua • Don Iberico ezkur-iberikoak • Julian Martin ezkur-txorizo iberikoa • Julian Martin ezkur-saltxitxoi iberikoa • Delicass ahate-antzara-gibela • Martiko ahate-urinekoa latan • Covap ezkur-solomoa sobreetan • Eci ahate-urdaiazpikoa • Eci iberikoak • Vasco-Navarra ardi-gazta latan • Covap ezkur-urdaiazpikoa sobreetan • Vasco-Navarra Idiazabal gazta • Lau 1724 tonika • Cuvee Bruno Paillard Brut Premiere xanpaina • Moet Chandon Brut Imperial xanpaina • Remy Martin cognac-a • 2007ko Marques Riscal Erreserbako ardo beltza • Rose Collet Brut xanpaina • Azpilicueta kiantza beltza • Glorioso kiantza beltza • Arienzo kiantza beltza • Verdejo Blume ardo zuria • Duron kiantza beltza • Ederra kiantza beltza • Illy kafe ehoa • Soles de Gredos hostopilak • Guyliau itsas-fruituak • La Higuera piku-bonboia • Peñin artisa-txokolate esneduna • Peñin artisa-txokolate zuria • El Caserio piñoidun karamelu bigunak • English Breakfast Twining te-ak • Blueberry Clair de Lune arandano-bonboiak • Peñin almendra-teilak • Montesori askotarikoak • Peñin trufak • Tortiera Costurero Dalcolle panettone-a • Dalcolle panettone-a • Toque Espezia-gin&tonic-a • 1880 almendradun txokolate-turroia • Vega Carabana oliba-olio birjina estra • Casti. Tabernas oliba-olio birjina estra • Vicens jogurt eta almendradun turro kurruskaria • Alicante 1880 turroia • Artesania almendradun txokolate-turroia • Doña Jimena txokolatez betetako almendrak • Suchard txokolate-turro kurruskaria • Mata gabonetako askotarikoak • Valor txokolate-turroia (egurrezko kaxa berezia) • Jijona 1880 turroia • Led Inves 14614fhd gr 46" telebista

2.000 euroko
Gabonetako OTARRA

GAUR (19.00-21.00)
BIHAR (13.00-14.00)
KALEAN EROSTEKO AUKERA

SALMENTA LEKUAK: - AEK euskaltegia - Arriaundi OKINDEGIA - Bolintxo OKINDEGIA - Depor TABERNA - Ego Gain TABERNA - El Corte Ingles - ...eta kitto! - Echetto - Urkizu - Guridi TABERNA - Isasi OKINDEGIA - Izadi LORADENDA - Kultu TABERNA - La Golosina - Maria Ospitxal (Calbeton eta Jardinieta) - Mugika HARATEGIA - Ogi Berri Urkizu - Otegui HARATEGIA - Udal Euskaltegia - Untzaga PRENTSA - Zabaleta OKINDEGIA - Zubi Gain TABERNA



33 taberna pintxo lehiaketan

Hogeitamahiru tabernek eman dute izena Arrate Kultur Elkarteak antolatutako XI. San Andrés Pintxo Lehiaketan parte hartzeko: Agiñaspi (Egoko Txikia), Zubi Gain (Itsasoa eta Lurra), Valle (Kapritxo), Astelena (Berenjena hostopila), Trinkete (Sorpresa), Aterpe (Eibarko Gola), Anardi (Txanogorritxo), Ambigu (Zaar), Ongi Etorri (Urrezko kokkatxo), Kultu (Kalikeño), Depor (Herriko), Birjiñape (Cupcake), Akhara (Ukuiluko eztanda), Arkupe (Bakailao Mokadutxo), Batzokia (Infernu Armagiña), Paulaner (Udazkena), Bossa (8a), Slow (Itsasoa eta Mendia), Amesti (Apirilak Bost), Lau Bide (Amañako Udazkena), Iruki (Montadotxo), La Terraza (Astur), Cepa (Ju-

lits), Afrikan Haritza (Afrikan Sagarra), Boulevard Degustacion (Bakailao-lora), Su Beroa (Bakailao alioliarekin), Hirurok (Parmesano Ilargia), Foxtter (Foie-bola), Zazpi (Txikito berezia), Maixa (Odolostea gorringoarekin), Koskor (Maite Zaitut), Oishi (Kalamar bokata) eta Txoko (Udazken Goxoa). Eguaztenean eta eguenean lehiaketarako pintxoak bezeroek jateko moduan ipini beharko dituzte eta epaimahaiko kideak egun bietan batetik bestera ibiliko dira bakoitzean prestatutako pintxoak probatzen, gero onenak aukeratzeko. Horrez gain, bezeroek botoa eman eta publikoaren saria zeinek jasoko duen erabakiko dute.



Maila bi bereziko dituzte lehiaketan.
LEIRE ITURBE

Eskolarteko bakailao lehiaketa

Domekan Eskolarteko Bakailao Lehiaketa egingo da **Unzagan**, 11.00etatik aurrera, Bakillauaren Kofradixiak antolatuta. Herriko ikastetxe guztietako bikoteak lehiatuko dira eta sariak banatzeko orduan maila bi bereziko dituzte: 12-14 urte bitartekoa eta 14-16 urte bitartekoa.

Bakillauaren Kofradixiaren XXI. Batzar Nagusia, bestalde, azaroaren 23an ospatuko da. Betiko moduan, kanpotik etorriko diren kofradietako kideekin batera kalejira eta bazkaria egingo dute eta, Goruntz abesbatzaren parte-hartzea izango duen ekitaldian, aurtengo ohorezko kofradeak izendatuko dituzte: Nafarroko Barrubetearen Kofradia, Mikel Urkola eta Arrate Filatelia Elkarteak.

Sostoa eta Banda, elkarrekin Santa Zezilian

Santa Zeziliaren omenezko kontzertua inoiz baino bereziagoa izango da aurtan, Sostoa abesbatzak eta Cielito Musika Bandak lehenengoz elkarrekin jardungo dute eta. Emanaldira doazenei herriko taldeek zer egiteko gauza diren erakutsi nahi diete, ia norbait eurekin bat egitera animatzen den. Izan ere, Sostoa abesbatzak koralista gazteak erakarri nahi ditu, taldearen etorkizuna bermatze aldera. Abesbatzak 30 urte bete ditu eta beste horrenbeste betetzeko abestea gustoko duen jende berria sartzen joatea beharrezkoa da. Entseguak martitzen eta eguenean, 21.00etatik 22.30etara egiten dituzte, Musika Eskolan (Portalean).

Taula gainean ehun bat lagun elkartuko dira eta egitaraua osatzeko orduan "saioa alaia eta orotarikoa" izaten ahalegindu dira: bandarako pieza bik, pasodoble batek eta Latinamerikako doinu batek ekingo diote emanaldiari eta hortik aurrera bandak eta abesbatzak elkarrekin jardungo dute. Besteak beste Andrew Lloyd Webber-en filmeetarako sortutako doinuak, Errusiako abestiak eta Iñaki Urkizuk konpondutako hainbat euskal kanta eskainiko dituztela aurreratu dute. Kontzertua azaroaren 23an (domekan) izango da, 12.30etan Coliseo antzokian eta sarrera libre izango da, toki guztiak bete arte.



JUAN ALCELAY OYARZUN

azaroaren 11-n hil zen, 83 urterekin



"Zure bizitzan asko disfrutatu duzu eta eskerrik asko eman diguzun bizi pozagatik"



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IRUNE, domekan gure etxeko printzesak zortzi urte egingo ditu-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE Gallastegi Etxaide, aurreko domekan 13 urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat aitta, ama eta Iraiaren partez.



Zorionak, PAULA IRINA, hillaen 11n bi urte egin zenduaz-en-eta. Muxu bat guraso eta amamaren partez. Jainkuak bedeinkatu zaitzala.



Zorionak, NORA, eta ondo pasau zure 4. urtebetetzian. Patxo pillotia etxeko guztien partez.



Zorionak, UNAX, atzo 7 urte egin zenduaz-en-eta. Jarraitu holan. Besarkada haundi bat Maddiren eta etxekuen partez.



Zorionak, IRENE, gure printzesa, atzo bi urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIALEN, etxeko sorgintxuak bi urte beteko ditu-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ALEJANDRO, hillaen 20xan lau urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Ander eta Neilen partez.



Zorionak, NAGORE Arakistain, domekan zortzi urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKHI, haraiñegun lau urte egin zenduaz-en-eta! Patxo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maddiren partez.



Zorionak, ENEKO, atzo gure etxeko txikixak sei urte egin zittuan-eta. Aitaxo, amatxo, Aretx eta famelixa guztiaren partez. Maitte zaittugu!



Zorionak, IZARO, martitzenian sei urte egin zenduaz-en-eta. Jarraitu horren zintzua izaten... Muxu potolo bat.



Zorionak, OIER Kortina (martitzenian zortzi urte egin zenduaz-en), IKER Lazkano (urriaren 28xan bost urte bete zenduaz-en) eta MARTIN Kortina (azaruaren 6xan bost urte egin zenduaz-en), zuren urtebetzietan. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI eta JON, atzo hiru urte bete zenduaz-en-eta. Laztan haundi bana.




Zorionak, BEGOÑA eta ROBERTO, urriaren 17xan 50 urte bete zenduaz-en-eta ezkondu zifaziela. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANGELA, martitzenian sei urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez, printzesa!



Zorionak, ANDER, bixar bost urte beteko dozuz-eta. Muxua famelixa eta laguneren partez.



zinea Coliseoan

"Dixie" (2 ARETOAN)
15ean: 17.00
16an: 17.00

"Boxdrolls" (ANTZOKIAN)
15ean: 17.00
16an: 17.00

(1 ARETOAN)
15ean: 17.00, 19.45. 2230
16an: 17.00, 20.00
17an: 20.30

(2 ARETOAN)
15ean: 19.45. 2230
16an: 20.00
17an: 20.30

(ANTZOKIAN)
15ean: 19.45. 2230
16an: 20.00
17an: 20.30

"Justi & Cia"

Zuzendaria: Ignacio Estaregi

"Amor en su punto"

Zuzendaria: Dominic Harari

"Caminando entre tumbas"

Zuzendaria: Scott Frank



Zorionak, KAREN, astelehenian sei urte egin zenduaz-en-eta. Muxu bat aitaxo, amatxo eta, batez be, Naiararen partez.

BARIXAKUA 14

GAZTELEKUA

16.30. Disparatea eta Diana txapelketa. Indianokuan.

SHOPPING TIME

18.00/22.00. El Corte Inglesean (T. Etxebarria).

FILM LABURRAK

20.00. Asier Errasti XV. Jaialdiko lan finalisten proiektzioa. Coliseoan.

ANTZERKIA

20.30. Edgar Nevilleren "El baile", El Vodevil taldearen eskutik (18 euro). Coliseo antzokian.

ZAPATUA 15

GARAPEN AZOKA

11.00/14.00. Tailerrak eta eskaintza ezagutzeko jarduerak. Untzaga karpan.

URTEURRENA

13.00. Beleko tabernaren 1. urteurren piskolabisa. 23.00etan sorpresa.

GINNASIA ERRITMIKOA

15.30. XVI. San Andres Torneoa. Ipurua kiroldegian.

GAZTELEKUA

17.00. Disparatea eta Diana txapelketa. Indianokuan.

IPUIN KONTALARIA

17.30. Andrina Basandrinaren saioa, Zurrumuru taldearekin. El Corte Inglesean.

DJ-A

18.00. DJ saioa. El Corte Inglesean (2. solairuan).

FILM LABURRAK

18.30. Asier Errasti XV. Jaialdiko irabazleei sariak banatzeko ekitaldia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren kalejira. Untzagatik irtenda.

KONTZERTUA

23.00. Platinum, Abba-ren omenezko taldea (22 euro). Astelena frontoian.

DOMEKA 16

PINTURA LEHIAKETA

09.00. XXXVII. Aire Zabalako Pintura Lehiaketa. Izen-ematea 11.00ak arte, Portalean.

BAKAILAO LEHIAKETA

11.00. Eskolarteko Bakailao Lehiaketa. Untzagan.

GARAPEN AZOKA

11.00/14.00. Tailerrak eta eskaintza ezagutzeko jarduerak. Untzaga karpan.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokuan.

ASTELEHENA 17

HITZALDIA

18.30. "Conociendo Nepal", Liburutegiak Topaleku egitarauaren barruan. Juan San Martin liburutegian.

MARTITZENA 18

IKASTEN

10.00. "Experiencia de cooperacion sanitaria" hitzaldia, Jose Luis Albizuren eskutik. Armeria Eskolan.

JOSKINTZA TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

HITZALDIA

19.00. "Prevencion infantil y juvenil de problemas de espalda", Marmier doktorearen eskutik. Aldatze ikastetxeak antolatuta. Portalean.

EGUAZTENA 19

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: "El bombardeo de noticias y la alarma social generada". Untzagako jubilatuek etxean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

19.30. "Euskal Herriaren Zeharkaldia"-ren 2. zatia, Periko Iriondoren eskutik. Klub Deportiboan.

PINTXO LEHIAKETA

Egunean zehar. XI. San Andres Pintxo Lehiaketako pintxoak tabernetan jateko moduan.

EGUENA 20

IKASTEN

10.00. "Vision cientifica del mundo" hitzaldia, Juan Luis Ibarluzearen eskutik. Armeria Eskolan.

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

PINTXO LEHIAKETA

Egunean zehar. XI. San Andres Pintxo Lehiaketako pintxoak tabernetan jateko moduan.



mendiko ikus-entzunezkoak

azaroaren 19an, 19.30etan

HOROSKOPOA

ARIES

Oraindik ez dakizu nork bidali dizun SMS hori? Irakurriztu ondo: pistaren bat izango duzu. Ez erantzun ziur egon arte.

TAURUS

Asteburuetan udan ezagutu zenuen lagun berezi batekin egongo zara. Aukera berria udakoari jarraipena emateko.

GEMINI

Diskrezioa, arren! Sekretuak gordetzeko eskatzea alperrik da. Ez baduzu jarrera aldatzen, ez dizute ezer kontatuko

CANCER

Erabakiak bate prontoan hartzeko ohitura duzu, sarritan garesti ordaindu behar izaten duzuna. Izan arduratsua.

LEO

Asteburuetak planaz aldatzea komeni zaizu, aspertu baino lehen. Galdu lotsa eta, behingoagatik, ligatu ahal duzuna.

VIRGO

Olentzerori zer eskatu pentsatzen ari zara? Aurpegi galanta duzu: opariak jasotzearen edozer egingo zenuke.

LIBRA

Etxeko lanak egitea zuri ere badagokizu. Hori ez da ez hotela, ez pensioa. Hasi zaitetz lanean; ez dizu kalterik egingo.

SCORPIUS

Aste honetan opari bitxi eta misteriotsua egingo dizute. Horrelakorik espero ez bazenuen ere, pozarren hartuko duzu.

SAGITTARIUS

Hainbeste litxarrerria eta gero, tripako minez zaudela? Normala! Kontrolatu apur bat, Gabonak ate-joka dagoz-eta.

CAPRICORNIUS

Lagaizu behingoz telebista lasai, neurria hartu! Eguraldia kaxkartzen hasi bada ere, aprobetxatu kalera irtetzeko.

AQUARIUS

Jasanezina zaude. Egun osoan umore txarrez... Buruhausteak badituzu, kontatu, baina ez erririk bota besteei.

PISCIS

Amodioak sari potoloa ekarriko dizu laster. Hainbeste denboran itxaroten egon zarena lortuko duzu. Zorionekoa!

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

✓ Azaroaren 16ra arte

MICHEL TYTGAT-EN margo erakusketa.
Topalekuan.

INDALEZIO OJANGUREN XXVII. ARGAZKI LEHIAKETA. Portalean.

✓ Azaroaren 30era arte

MARIANO CANO-REN argazki erakusketa.
Klub Deportiboan

BAKARNE ELEJALDEREN argazki erakusketa.
Portalea tabernan.

MIGUEL CABEZAS-EN argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan

✓ Abenduaren 27ra arte

ROBERTO ZAMANILLO ARNAIZ-EN mikologia argazkien erakusketa. *El Corte Inglesean.*

farmaziak

✓ barixakua 14

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ zapatua 15

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✓ domeka 16

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ astelehena 17

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ martitzena 18

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

✓ eguaztena 19

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ eguena 20

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✓ barixakua 21

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ BETI

Azkue (T. Etxebarria, 4)

hildakoak

- Felisa Urzuriaga Ugarteburu. 86 urte. 2014-XI-5.
- Jesusa Barua Dañobeitia. 93 urte. 2014-XI-5.
- Cecilia Zugasti Bilbao. 88 urte. 2014-XI-6.
- M^a Luisa Garate Altuna. 79 urte. 2014-XI-6.
- Nicolas Ugarte Miguel. 81 urte. 2014-XI-7.
- Julian Carretero Barambio. 75 urte. 2014-XI-7.
- Nicolas Alonso Saseta. 71 urte. 2014-XI-8.
- Carmen Manso Ibarluzea. 85 urte. 2014-XI-8.
- Jose Etxaniz Muguruza. 83 urte. 2014-XI-9.
- Luis M^a Elorrieta Arribazalga. 66 urte. 2014-XI-10.
- Juan Alzelai Oiarzun. 83 urte. 2014-XI-11.
- M^a Pilar Oregi Martinez. 87 urte. 2014-XI-11.

jaiotakoak

- Marc Maldonado Reyes. 2014-X-24.
- Mohamed El Mabrouky. 2014-X-30.
- Yasin Bensaid Joya. 2014-X-30.
- Zalao Carracedo Pineda. 2014-XI-2.
- Jeyko Esparza Cabeza. 2014-XI-2.
- Helena Olasolo Arzuaga. 2014-XI-3.
- Libe Lameiras Fernandez. 2014-XI-4.
- Beñat Gerenabarrena Yaza. 2014-XI-5.
- Gari Olaetxea Markina. 2014-XI-6.
- Marina Oruña Roitegi. 2014-XI-7.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.50, 19.50 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.50, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.50.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egurnero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egurnero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egurnero: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egurnero: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egurnero: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egurnero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

		4	8	5		3		6
				6		9	8	
			7					
9						7		5
	1		6	9	5			3
2		3						8
					6			
	7	1		3				
3		2		4	8	5		

SUDOKUA

6	4	5	1	7	3	9	2	8
8	1	2	4	5	9	7	3	6
3	7	9	8	6	2	5	1	4
4	2	3	5	9	6	1	8	7
1	5	7	3	2	8	4	6	9
9	6	8	7	4	1	3	5	2
5	8	6	9	1	7	2	4	3
7	3	1	2	8	4	6	9	5
2	9	4	6	3	5	8	7	1

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Legarre, 7an. Bigarren solairuan. Igogailua eta berogailua. 120.000 euro (ordainketarako erraztasuna). Tel. 685-172172.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Tiburtzio Anitua kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Eguzkitua. Berritua. Tel. 662-105257.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Urkizu-Jardiñeta inguruan. 2/3 logelakoa. Tel. 602-490595.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 685-380585.
– Pisu ia berria alokagai Elgetan. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta 2 komun. Igogailua eta kalefakzioa. Egoera onean eta sartzeko moduan. Tel. 606-083992.

1.3. Konpartitzeko

– Eibarren pisua konpartitzeko lagun baten bitartean. Tel. 660-833346.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Arantzako geltokian. Haundia. Prezio onean. Tel. 647-952677.
– Gazteendako lokala hartuko genuke Ipurua, San Kristobal eta Abontza inguruan. Tel. 685-726084.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 603-740755.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-800519.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-811263.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 608-523426.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197217.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 650-513412.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 697-372374.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-910991.
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Ingeles maila altua. Tel. 632-695273.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-436363.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 665-216932.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-683176.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-686786.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-314559.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 606-859448.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-406227.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako lanak egiteko. Orduka. Tel. 632-045973.
– Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 655-677035.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa edo orduka. Tel. 648-180233.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gida baimena eta erreferentziak. Interna. Tel. 631-343232.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 631-705406.
– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-820429.
– Emakume arduratsua eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-970524.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-567680.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-942816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 674-342769.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-047799.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 653-811764.
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko edo eskolara eramateko. Tel. 606-187556.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 680-121252.
– Neska eskaintzen da nagusiak gaez zaintzeko. Baita umeak zaindu eta garbiketarako egiteko ere. Tel. 674-713262.
– 29 urteko emakume euskalduna, unibertsitate ikasketekin, eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan lan egiteko. Tel. 646-369330.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 633-244397.
– Erizain laguntzaile eibartarra eskaintzen da goizez orduka nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-607121.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-846244.
– Geriatria titulua daukan emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 652-532589.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-395829.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan orduka zein interna lan egiteko. Tel. 602-186462.
– Gizona eskaintzen da lan egiteko. Tel. 628-740765.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-800519.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gaez ere. Orduka. Tel. 686-265293.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-691378.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-768803.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak, tabernak eta pegorak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 631-282203.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduzabala. Tel. 671-258740.

4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da egun guztirako eta kamarera/o behar da extrak egiteko. Curriculum-a bidali: eibarkafe@gmail.com
– Kamarera/o behar da extrak egiteko. Tel. 670-541347 eta 943-750030. Oskar.
– Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-262868.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Ingeleseko klase partikularrik ematen dira, 4 urteik aurrera. Talde mugatuak. Esperientzia EEBB-etan eta Euskal Herrian. Tel. 651-706303.
– DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako prestakuntza. Matematikak, Ekonomia, Fisika, Kimika, Euskera, Ingelesa, Gaztelania eta Estatistika. Tel. 685-739709 eta 943-127365.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Wii "u"-rako jokoak salgai. "Mario y Sonic en los juegos olímpicos de invierno 2014". Zabaldu gabe. Tel. 617-256466.
– Organo elektronikoa salgai. 600 euro. Inprimagailua opari. Tel. 943-752480.
– Gazte logela salgai: armairua, 90eko ohea eta eskritorioa. Tel. 645-007388.
– Bizikleta estatikoa salgai. BH Athlon markakoa. la erabili gabe, oraindik garantiarekin (2015eko amaierara artekoa). Tel. 645-007388.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Ezkontza-eraztuna aurkitu genuen Isasi inguruan urriaren 17an. Izena eta data grabatuta. Tel. 650-300906.

Girorik onenean

13. ESKERRIK ASKO urteurrena

Calbeton, 6

AZAROAK
21
barixakua




00-007
GATA
ETA OPARIAK



PINTXORIK

ONENAK



TXO, MIKMAK TXIKIA

PURRITx, Eibarren
berriro ere
PORROTx
eta **MARINOTOTS**

abenduak 13
ZAPATUA
16.30 eta 19.00

abenduak 14
DOMEKA
16.00 eta 18.30

"TXO, MIKMAK TXIKIA"
LAN BERRIAREKIN

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten
BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA
azaroaren 17tik 28ra (750 euro)

...eta kittol-n salgai:
barkide bakoitzak 3 sarrera gehienez
SALMENTA ORDUTEGIA: 10.00-14.00 eta 16.00-19.30

GAINONTZEKOAK

azaroaren 29tik aurrera (8'00 euro)

El Tío Palancas, Eneritz argazkidea eta Gozoki-n
(JUAN GISASOLA) (URKIZU) (BIDEBARRIETA)



Asko dira

gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com